

¡Seme baten tristura!

(NERE ADISKIDE EMETERIO ARRESE-RI)

*¡Zeru garbiya odoi illunak
zer nola duben illuntzen!
Ala berian nere barrunak
illuna du gaur sentitzen;
pentsaturikaren lenago egunak
nola nituben estitzen.....
bañan gaur ja, bai! samintasunak
gogorki nau ni estutzen.*

*Len ez nekiyen nik zer zan pena
bañan orain det ikasi,
alaitasuna nuben len dena
pozez nitzan beti bizi;
bañan ontasun denen azkena
gaur etortzen det ikusi.
¡Ta biyotzeko atzegin lena
nigandik joan da igasi!*

*Arrautz barrenan oi dan moduan
gordetzen sumoa osorik,
ala berian nere sentsuan
nituben pozak gozorik;
bañan azala autzitakuan
ez da gelditzen sumorik,
ala izate barrenekuan
ez det arkitzen pozarik.*

*Mundu ontatik joan da Zerura
nere amacho maitia,
aingerucho bat oi dan modura
merezimentuz betia;
etzan komeni nonbait pozgille
nerekin bat izatia.
¡Kunplitu bedi gure Egille
Jaunaren borondatia!*

*¡Au bakardade mingarritsua,
nere biyotza estu da
atzegin nere maite gozua
joan zaidalako Zerura!
Barren nerea ain paketsua
joan zait larri chit estura
amacho dontsu, dontsu gašua
gabe, auſen da ¡tristura!*

JOSÉ ARTOLA